

Xedezkoa

linguistikoen tratamendu banandua, bes-tela teoriaren frogantza bakarra, teoria bera bait da Feuer-ek, berriz, zera uste du, bizi izateko hain beharrezkoak diren mundu fisikoko elementu hauek —espa-

zioa, denbora, kausaltasuna...— ezin dai-tezkeela era desberdinez burutu, haien oharren zuzena bizitzearen baldintza be-te beharrezkoa bait da.

A. Eguzkitza

X

Xedezkoa

final, de finalidad / de but / final

1. Gramatika tradizionalan, xedezko osagarria eta xedezko menpeko →proposizio zirkunstantziala →aditz nagusiaren →ekintza zein asmotan egina den adierazten dutenak dira. Adibidez, *Bizi ahal izateko ari da kantatzen* edo *Berehala ekar itzak liburu horiek, arrebak laster irakur ditzan*.

2. Gramatika estrukturalan, «xedezko» izena aditz iragankorraren →objektuari ematen zaio batzutan, izen →subjektua →jardulea izanik. *Anttonek liburu hau irakurri du* perpausan *liburu hau* osagarria litzateke *irakurri* aditzaren xedea, eta *Anttonek* subjektu jardulea.

Xixakaria

chuintante / chuintante / palatal sibilant

→Kontsonante xixakariak kontsonante →igurzkariak dira, gehienetan albeolareatze-ko edo auresabaikariak, adibidez euskarazko [š] «xamur» eta frantsesezko [ž] «jam-bon». Hurbilen dituzten kontsonante →txis-tukariekin ([š] eta [s] euskarazko *soro* eta *zoro*) zenbait berezketa dute: artikulazio-puntuaren atzeratze txiki bat, eta batipat aurreratze eta borobiltzea artikulazio xixa-karikako.

Ezpain-barrunbearen eraginak dardara →maiztasunaren beherapena dakar, eta honela xixakarien espektroan energia beheko aldetan biltzen da (2.000tik 3.000 bat ziklo segundoko, 4.000 edo gehiago izan ordez.).

Z

Zabaltasuna

amplitud / amplitude / amplitude

→Fonetika akustikoan, aire dardarzarizko partikulen atseden-puntuaren eta horiek be-ren higiduran lortzen duten muturreko pun-tuaren arteko tartea deitzen da ahots-uhina-ren *zabaltasuna*.

Dardararen *zabaltasunak* →soinuaren in-tentsitatea manatzen du (→maiztasuna irau-nkorra izanez geroz). *Zabaltasuna* bi aldiz handiagoa eginez, soinu baten intentsitatea lau aldiz handiagoa egiten da. Maiztasun berdineko dardara bi edo gehiagoren konbi-nazioak *zabaltasuna* emendatzen ahal du: horrela →ahots-korden dardarak sorturiko soinu-uhina entzungarria egiten da beraren *zabaltasuna* ahoskuntz aparatuauren durun-digile desberdinen bidez bortiztuz.

Zarata

1. Mintzatzerakoan, aidea eten egiten dugu batzutan, osoki edo erdzika; eta

etendura horrek *zarata* bat sortzen du. Hau dela bide, laringeak egiten dituen dardarak ez dira beti, mintzamenan, →hizketa→soinuen iturri bakarra. →Arti-kulazioan laringe-soinuaz besterik ez ba-dago, →*bokal* baten aurrean gaude; eta oinarritzko dardara horri zarataren bat ere eranstean baldin bazaio, →*kontsonante* baten aurrean.

2. →Komunikazioaren teorian, berriz, informazio-galera guztiei deritze *zarata*. Edozein →mezu-igorketatatan, bi mutur berez daitezke: →*igorlea*, batetik, mezua kodetu eta igortzen duena, eta →*jasotzai-lea*, bestetik, mezua deskodetzen duena. Bi muturren arteko kurrubidean, nolana-hiko trabak gerta daitezke; eta, hitz batez, irteerako informazio-kantitatearen parte bat gal daiteke bidean. Eman de-zagun:

Abiaburuan = 25 (bit)
 Helburuan = 21 (bit)
 «zarata» gisa, galdurik = 4 (bit)

Galera hau, noski, bai elektrika-harrietan, bai aidean barrena, bai bestela, gerta daiteke. Igorleak igortzen duen mezu-ilara («input»), eta jasotzaileak jasotzen duena («output»), ez dira erabat berbera. Bi ilara horien arteko desberdintasunari *errore* deritzo; eta beronen kakoa, zarata da.

Mezu bat igortzerakoan horrela, kurribideaz bestaldean ulergarri gerta dadin, informazio-gehigarri bat erantsi behar zaio; mezua, zaratarengatik lardaskaturik ere, ulergarri gerta dadin.

Informazio-gehigarri horri →*erredundantzia* deritzo.

Txillardegia

Zeharkakoa

indirecto / indirect / indirect

1. *Zeharkako osagarria*: ik. *osagarria*.
 2. *Zeharkako estiloa*: beste baten edo norberaren hitzak edo pentsamenduak berresateko era bat da *zeharkako estiloa*. Estilo *zuzenari* oposatzen zaio: honek, esandako hitzak osoki berregiten ditu (galdetu zuen: *Zenbat diru dago?*); zeharkakoak berriz hitz horiek menpeko perpaus baten bidez berresaten ditu, →aditz nagusi baten osagarri dena (*Zenbat diru zegoen galdetu zuen*).

3. *Zeharkako estilo librea*: estilo zuzen eta zeharkakoaren arteko erdibide bat da; literatur mailan, ez egunoroko →hizketan, eman ohi da batipat. Hemen ere hitzak edo pentsamenduak berresaten dira. Berresandako perpausak, estilo zuzenean bezala, tonuzko sintaxi mailako askatasuna du. Idazkeran, bi puntuen atzetik joan ohi da. Ez dago aditz nagusirik (hau ez da ez zuzenean ez zeharkakoan gertatzen); baina →moduak eta →denborak aldatu egiten dira (zeharkakoan bezala): *Haserre zegoen: ez zara joango!*

Zeiharra

oblicuo / oblique / oblique

→Atribuziozkoaren →funtzio gramatikalak (→datiboa) edo funtzio konkretuak (→genitiboa, →ablatiboa, lokatiboa, →bitartezkoa) adierazten dituzte kasu zeiharrek. →Kasu zuzenei aurjakartzen zaizkie, hauek →subjektuaren eta osagarriaren funtzio gramati-

kalak adierazten dituztenez (→nominatiboa, →ergatiboa, →akusatiboa).

Zeinua

Hiru dira *zeinu hitzaren* →adierak, aipatu behar dugun «zeinu linguistiko»az gain: 1. *zantzua*, h.d., lehenengoan ezin ikus daitekeen fenomenoaren «zeinua» edo «zantzua» den beste fenomeno bat, gehienetan naturala, eta behingoan ikus-tekoa. Esate baterako, *ebatondo* bat eba-kuntza baten aztarna izan daiteke, edo *elgaitza* gaixotasun batena, 2. *seinalea*, h.d., honako baldintza bi hauek betetzen dituen aztarna, a) helburu batez sortua izatea, b) seinalearen →jasotzailearentzat ulerkorra izatea; eman dezagun, trafikoseinaleak; 3. →*ikurra*, h.d., →Saussure-k dioenez, zeinuaren bi elementuen artean (ikus beherago eta *Europako Estrukturalismoa*) harreman natural xumea, eta beraz ez-→hautazkoa, duen zeinua, askotan forma grafikoa duena; adibidez, bakearen ikurra den uso zuria.

Zeinu linguistikoa «→adierazle» edo irudi akustiko baten eta «→adierazi» edo →kontzeptu baten →elkargoa da, →Saussure-ren terminologian «signifiant» baten eta «signifié» baten elkargoa. Haren ustez, bi dira zeinuaren barne-ezau-garri nagusiak; hautazkotasuna eta →ler-rozkotasuna. Zeinua →hautazkoa da motibogabea delako, «etxea», «maison», «Haus» edo «ti» adierazleak, kontzeptu edo adierazi bakar baterako erabiltzeak ez bait du inolako kausa naturalik; adierazle horiek naturarekin edo errealitatearekin loturarik ez bait dute, eta hala dira zein bere hizkuntzan. Zeinua lineala da, berriz, irudi akustikoa denboran aitzinatzen delako, eta horregatik linealki, h.d., hedadura bat duelarik, hedadura hori izari batetan neur daitekeelako bakkirik: lerrozkotasunean.

Zeinu linguistikoa hautazkotasunaren eztabaida, azken hirurogei urteetako europar hizkuntzalaritzan gertatu den handienetakoa dugu (ikus bibliografia Bernhard Lindemann-en baitan). Lehen-dabizikoz esan behar da, Coseriu-k erakutsi duen bezala, ez dela ideia hori inolaz ere Saussure-rengan berri, 2.300